

Esfera publiko agonistikoaren alde

Chantal Mouffe

Teoria Politikoaren Katedraduna. Westminster-go Unibertsitatea, Londres

Artikulu honen bidez, gogoeta batzuk aurkeztu nahi ditut, gizarte demokratiko sendo baterako beharrezkoa den esfera publikoari buruz. Gaur egun nagusi den diskurtso bat aztertu nahi dut: "aurkaritzako eredu politikoaren amaiera" iragarri eta ezkerrez eta eskuinaz harago zentroko adostasunezko politikarantz joateko beharra aldarrikatzen duena. Nire tesia honako hau da: diskurtso-mota horrek oso ondorio txarrak ditu politika demokratikoan, horren defendatzaileek aurkakoa dioten arren. Izan ere, "politikako esfera publiko demokratikoa" ahultzeaz gain, diskurtso juridiko eta moralaren nagusitasuna ekarri du, eta, nire ustez, nagusitasun hori oso kaltegarria da demokraziarako. Politika gero eta gehiago ari da moralizatzen eta juridikotzen, eta, nire iritziz, hori ez da aurrerabidetzat jo behar, ezta demokraziaren garapenerako urratzat ere; demokraziaren etorkizunerako mehatxua da.

My aim in this presentation is to offer some reflexions concerning the kind of public sphere that a vibrant democratic society requires. I want to scrutinize the dominant discourse which announces the 'end of the adversarial model of politics' and the need to go beyond left and right towards a consensual politics of the centre. The thesis that I want to put forward is that, contrary to what its defensors argue, this type of discourse has very negative consequences for democratic politics. Indeed it has contributed to the weakening of the 'democratic political public sphere' and it has led to the increasing dominance of juridical and moral discourse, dominance which I take to be inimical to democracy. I submit that the increasing moralization and juridification of politics, far from being seen as a progress, a further step in the development of democracy should be envisaged as a threat for its future.

I.

Hainbat arrazoigatik ahuldu da politikako esfera publiko demokratikoa: arrazoi batzuk globalizazioaren erregimen neoliberalaren nagusitasunari daude lotuta; beste batzuk, berriz, gizarte industrializatuenean nagusi den kontsumo-kultura indibidualistari. Ikuspegi politikokoago batetik begiratuta, argi dago komunismoaren porrotak eta muga politikoen desagertzeak gizarteko adierazle politikoak deuseztatzea eragin dutela; izan ere, horiek izan dira ia mende osoan zehar ideia politikoak egituratu dituztenak. Mendebaldeko herrialdeotan, eskuinaren eta ezkeraren arteko mugak apurka-apurka lausotzen ikusi ditugu. Zenbaitek bilakaera hori pozik hartu duen arren, nire ustez, horixe da politikako esfera publiko demokratikoa garrantzia galdu izanaren arrazoietakoa bat. Gainera, oso ondorio larriak ditu politika demokratikoa.

Beste egoera batzuetan erakutsi izan dudanez, zentroko alderdien gorespenak eta alternatiba demokratiko eraginkorrik ezak eraginda, eskuineko alderdi populisten arrakasta areagotu egiten da. “Zentroko adostasuna” dela-eta alderdi demokratikoak ez badira gai grina horiek beren alde mobilizatzeko, irrika horiek beste bide batzuk aurkitzen dituzte; esaterako, mugimendu fundamentalisten, aldarrikapen partikularisten edo auzi moral eztabaidaezinen bidez. Gizartean bizitza demokratiko dinamikorik ez badago —hots, hainbat identitate politiko demokratikoren arteko benetako konfrontaziorik ez badago—, beste era bateko identitateek hartuko dute horien lekua; esaterako, identitate etniko, erlijioso edo nazionalistek. Eta prozesu demokratikoak ezingo ditu bideratu identitate horiek sor ditzaketan antagoinismoak.

Baina, hemen, guztiz politikoa den diskurtsoan jarriko dut arreta: horren gain-beheraren arrazoiak eta ondorioak aztertzeaz gain, diskurtso politiko hori diskurtso moralak —eta, askotan, moralistak— zergatik ordezkutzen duen ikusiko dugu. Nire ustez, gertakari hori liberalismo moralizatzailearen arrakastaren seinale da. Liberalismoak antagonismoak desagertu direlako itxura egiten du: egungo gizartea prozedura moral arrazionalen bidez bidera daitekeela sinetsarazi nahi digu, eta dauden gatazkak auzitegi inpartzialen bidez konpon daitezkeela. Horrenbestez, epaileei funtzio pribilegiatua ematen zaie, eta lege-sistema hartzen da giza bizikidetzaren antolatze eta gizarte-harremanak arautzeko arduraduntzat. Gizarte-arazoak ikuspegi politikotik landu ezin direnez, arlo juridikoari emango zaio pribilegio hori; izan ere, legediak era guztietako gatazkak konpon ditzakeela pentsatzeko joera handia dago.

Teorialari politikoa naizenez, moralitasunak eta legediak politika ordezkatzeko prozesu horretan teoria politikoak duen eragin negatiboa interesatzen zait bereziki. “Deliberazio-demokrazia” deituriko ikuspegia berehala ari da eztabaidagaiak inposatzen. Horren arabera, gai politikoek izaera morala dute —hori da printzipio nagusietako bat—, eta, beraz, arrazionalki eztabaida daitezke. Ikuspegi horren arabera, gizarte demokratikoaren helburua adostasun arrazionala lortzea da, deliberazio-prozedura egokien bidez. Hortaz, guztien interesen arabera, ikuspegi inpartzialek erabakiak hartzea izango da jomuga. Eta norbaitek adostasun arrazional hori zalantzan jartzen badu, demokrazia hondatu nahia egotziko zaio. Horixe egotziko zaio arlo politikoan desadostasunak agertzea gauza arrazionala

eta espero litekeen gertakaria dela adierazten duen orori ere. Alde horretatik, honako hau dio Habermas-ek (1996):

Justizia-gaietan ezin bada joan bizitza modu ezberdin bakoitzak etikaz duen norberaren ulermenetik harago, eta existentzialki garrantzitsuak diren balio-gatazkek eta aurkakotasunek gai gatazkatsu guztietan sartu behar badute, azken analisisian, Carl Schmitt-ek politikaz ulertzen zuenaren antzeko ikuspegia lortuko dugu.

Politika eta moralitasuna —modu arrazionalista eta unibertsalistan ulertuta— uztartzeko joera teoriko horrek oso ondorio negatiboak ditu politika demokratikoan; izan ere, politikako antagonismoa —nire ustez, ezinbestekoa— ezabatzen du. Horren eraginez, politikotasunak atzera egin du, eta juridikotasunak eta moralitasunak ordezkatu dute: horiek hartzen dira, gaur egun, erabaki inpartzialak hartzeko arlo egokitzat. Beraz, lotura handia dago teoria politiko horren eta politikotasunaren desagertzearen artean. Gainera, liberalismoaren joera baten lorpenzat jo daiteke egungo egoera. Eta liberalismoak benetan politikoki pentsatzeko gaitasunik ez duenez, bestelako diskurtso batzuetara jo beharra dauka: diskurtso ekonomiko, moral edo juridikoetara, hain zuzen.

Hori argi agertzen da John Rawls-en lanetan. “Arrazoi publikoaren erabilera askea” deitzen duenaren adibide onena auzitegi gorena dela dio, bere iritziz, deliberazio demokratikoaren eredia baita. Ronald Dworkin-en lanetan ere aurki daiteke horren adibidea, lan askotan epaile independenteei ematen baitie nagusitasuna: epaileak komunitatearen moralitasun politikoaren interpretetzat hartzen ditu. Haren ustez, zenbait arlotan —esaterako, lana, hezkuntza, zentsura eta elkartzeko askatasuna— komunitate politikoei dituzten oinarrizko arazoak hobeto konpontzen dituzte epaileek —konstituzioa berdintasun politikoaren printzipioaren arabera interpretatzen badute, behinik behin—. Ezer gutxi uzten zaio, beraz, politikaren arloari.

Richard Rorty-ren moduko pragmatikoei ikuspegi arrazionalistaren kritika garrantzitsua egin duten arren, ez dute lortu alternatiba egokirik ematea. Izan ere, beste modu batean bada ere, Rorty-k ere adostasunaren alde egiten du azkenean, eta galdu egiten du politikotasun-dimentsioa. Adostasuna lortzeko, diskurtso arrazionallean oinarritu ordez, limurtzean eta “heziketa sentimentalean” oinarritu behar dela dio; baina, hala ere, guztiak bilduko dituen adostasunean sinesten du, eta, hortaz, antagonismoaren desagertzean.

Baina hori desagertzen bada, zeharo garrantzitsua den elementu bat albora utziko da; garrantzitsua gizarte-bizitzako gatazken errealitate nagusirako, arazo politikoei konponbide arrazional eta inpartzialak emateko, nahiz demokrazia modernoan gatazkek duten funtzio integratzaileko. Demokraziak behar bezala funtziona dezan, nahitaezkoa da posizio politiko demokratikoen arteko konfrontazioa. Lehen esan bezala, hori desagertzen bada, konfrontazio demokratiko hori ordezkaturia izateko arriskua dago, eta balio moral eztabaidaezinen edo identitate esentzialisten konfrontazioak har dezake horren lekua. Adostasunean enfasi gehiegi jartzen bada eta konfrontazioekiko ezinikusia badago, parte-hartze politikoei apatia eta axolagabetasuna sor daitezke. Horrexegatik, beharrezkoa da gizarte demokratikoetan alternatibei buruz eztabaidatzea. Hau da: adostasuna beharrezkoa den arren, desadostasunarekin batera joango da beti. Erakunde

demokratikoetan adostasuna lortzea nahitaezkoa da, baita elkarte politikoak eratzen dituzten balio etiko-politikoak adostea ere; baina beti egongo da desadostasuna balio horien esanahiari buruz, baita horiek ezartzeko moduari buruz ere. Demokrazia pluralista batean, horrelako desadostasunak zilegi dira, eta, gainera, pozik hartu behar lirateke. Izan ere, herritartasun-identitatearen modu desberdinak emateaz gain, politika demokratikoaren oinarri dira.

II.

Proiektu demokratikoa defendatzeko eta horretan sakontzeko, premiazkoa da teoria politiko demokratikoari buruzko ikuspegi nagusiaren alternatiba bat aurkitzea. Alternatiba horrek esfera publiko demokratikoa berpizten lagundu behar du. Horretarako, ohartaraziko gaitu identitate politikoak benetan desberdinak diren posizio demokratikoetan oinarritu behar direla, eta benetako alternatiben artean hautatzeko aukera dugula. Horrexegatik defendatu nahi dut “pluralismo agonistikoaren” eredu, eta dauden bi politika demokratikoen ereduak aurka egin —agregazioaren eta deliberazioaren ereduak—. Nik proposaturiko ereduak, gizarteko botere-harremanen funtzioa aitortzeaz gain, antagonismoaren presentzia aitortzen du. Ikuspegi horren arabera, erakunde demokratikoen helburua ez da esfera publikoan adostasun arrazionala ezartzea, gizarteetako etsaitasunaren potentziala baretzea baizik; horretarako, antagonismoa “agonismo” bihurtzeko aukera izan beharko da. Hots: gizarte demokratikoetan, gatazka ezin da eta ez litzateke desagerrarazi behar, baina borroka horrek ez luke etsaien artekoa izan behar (antagonismoa), aurkarien artekoa baizik (agonismoa). Horregatik, nire ustez, politika demokratikoaren kategoria nagusia “aurkarien” kategoria da: aurkaria eta gu ados gaude “denentzako askatasuna eta berdintasunaren” printzipio demokratikoan, baina ez horren interpretazioan. Aurkariak elkarrekin borrokatzen dira, beren interpretazioa nagusitzea nahi baitute; baina, beren posizioaren alde borrokatzean, ez dute aurkarien zilegitasuna zalantzan jartzen. Niretzat, “borroka agonistikoa” terminoak aurkarien arteko konfrontazioa esan nahi du; nire ustez, hori da demokrazia sendo baterako baldintza nagusia¹.

Ikuspegi horrek badu berezitasun bat: demokrazia ulertzeko modu horrek “politikotasuna” deitu dudanaren dimentsioa aitortzen du —beste ikuspegi batzuek, berriz, ez—. Hau da: ikuspegi horrek antagonismo potentziala gizarte-harremanei atxikirik dagoela aitortzen du, hainbat modutakoa izan daitekeela eta inoiz ez dela guztiz desagertuko. “Politikotasuna” eta “politika” bereizi egin ditut: politikak diskurtso, erakunde eta jardueren multzoa adierazten du; horren helburua ordena jartzea eta giza bizikidetzaren antolatzea da, “politikotasunaren” presentzia dela eta, beti gatazkatsuak diren egoeretan. Lehen adierazi dudana bezala, politika demokratikoaren helburua antagonismo potentzial hori “agonismo” bihurtzeko erakundeak sortzea da; hots, adiskidea/etsaia harremana aurkarien arteko konfrontazio bihurtzea.

Gaizki-ulerturik egon ez dadin, nabarmendu nahi dut ez direla berdinak aurkari kontzeptu hori eta diskurtso liberalean kontzeptu horrek duen esanahia. Ikuspegi liberalekoen ustearekin bat ez datorren arren, nire iritziz, “aurkari” hitzak ez du

1. Diskurtso horri buruz gehiago jakiteko, ikus Chantal, M. (2000): *The Democratic Paradox*, Verso.

adierazten antagonismoa desagertuta dagoenik, nolabait otzanduta dagoela baizik. Izan ere, liberalek “aurkari” deitzen diotena “lehiakidea” besterik ez da: politika-arloa arlo neutralizat jotzen dute, eta botere-posizioa lortzeko lehiatzen dira zenbait talde. Horien helburua botere-postua hartzea da, baina ez da zalantzan jartzen hegemonia nagusia, eta ez dira aldatzen botere-harremanak. Eliteen arteko lehia besterik ez da, beraz. Baina, nire ustez, beti egongo da dimentsio antagonista; izan ere, aurkako proiektu hegemonikoen artean borroka dago, eta horiek ez dira inoiz arrazionalki adiskidetuko: bat beti izango da garaitua. Benetako konfrontazioa da, baina baldintzak araututa daude, aurkariek onarturiko prozedura demokratiko batzuen bidez.

Noski, deliberazio-demokraziaren aldekoek higuinarriztat joko dute ikuspegi hori, baita hirugarren bidearen jarraitzaileek ere —“schmittartzat” joko dute, ziur—. Baina, nire iritziz, ezinbesteko baldintza da politika demokratikoa biziberritzeko, baita erakunde demokratikoekiko egun bizi dugun axolagabetasuna alderantzeko ere, benetan joera arriskutsua baita. Horrenbestez, grinak eredu demokratikoen alde mobilizatu ahal izango genituzke.

III.

Orain arte, egungo politika demokratikoen teoriak dituzten akatsei buruz aritu naiz nagusiki. Nire helburua teoria horiek “Zeitgeist” politikoaren amaieran duten eragina erakustea izan da; izan ere, egun nagusi den egoera hori dela eta, ezin dugu behar bezala ulertu esfera publiko demokratikoa. Orain, beste joera bat aztertu nahi nuke, desberdina den arren, aurrekoarekin zerikusia duena: “gogoetazko modernitatearen” fase berri batean sartu garela defendatzen duen modako tesia. Horren arabera, aurkaritzako ereduaren politika zaharkituta dago, Ulrich Beck eta Anthony Giddens-ek diotenez. Ikuspegi horren ondorioak nabarmendu nahi ditut, baita diskurtso moralistaren egungo nagusitasunarekin duen lotura estua ere. Aurkaritzako ereduaren desagertzea iragartzen dutenek diotenez, adiskide/etsai eredu politikoa modernitate industrial klasikoaren ezaugarria da, “lehen modernitatearena”; baina, orain, beste modernitate batean bizi gara, “bigarren” edo “gogoetazko” modernitatean: hor, “azpipolitikak” nabarmendu behar dira, “bizitza eta heriotzari lotutako” gaiak. Beck-en ustez, honako hauek dira gai horiek:

Politika burgesaren ezker-eskuin esparruan, galera, arrisku, hondakin eta gainbeheratzen jotzen den oro. Norberaren buruarekin zerikusia duten gauzak; esaterako, “Nor naiz?”, “Zer nahi dut?” edo “Nora noa?” galderak. Hots, individualismoaren jatorrizko bekatu guztiek politikotasunaren beste identitate-mota batera garamatzate: bizitzaren eta heriotzaren politikara (Beck, Giddens eta Lash, 1994:45).

Illo berean, Giddens-ek zaharkituriko “emantzipazio-politika” eta “bizitzaren politika” bereizten ditu. Honela definitzen du azken hori:

Bizitzaren politikako gaiak ‘tradizional ondoko’ egoeretan norberaren burua eguneratzeko prozesuetan dute jatorria; horietan, globalizazio-joerak barneraino sartzen dira norbanakoaren gogoetazko proiektuan, eta, alderantziz, norberaren errealizazio-prozesuek estrategia orokorretan eragiten dute (Giddens, 1991:214).

Beste modu batean gauzatzen bada ere, hasieran kritikatu dudana deliberazio-demokraziak eta gogoetazko modernitatearen ikuspegiak oinarri bera dute: politi-

kotasunaren dimentsio antagonistikoa deuseztatzeko aukera eta adiskide/etsai harremanak desagertu direlako ustea, hain zuzen. Baina tradizional ondoko gizar-teotan ez dago gu/haiek moduko bereizketetan oinarrituriko identitate kolektiborik; hortaz, muga politikoak desagertu egin direnez, politika “berriro asmatu” behar da, Beck-ek dioen bezala. Zera sinetsarazi nahi digu Beck-ek: egun gailentzen diren eszeptizismo orokorrari eta zalantzen nagusitasunari esker, ez dela harreman antagonistarik agertzen. Anbibalentzia-aro batean sartu garenez, jadanik inork ez du uste bere iritzia dela benetako iritzi bakarra. Antagonismoak uste horretan oinarritzen zirenez, ez legoke horiek berriro agertzeko arrazoirik. Ez dago ondo ikusita ezkerrez eta eskuinaz hitz egitea, identitate kolektiboak helburu komun en arabera antolatzea edo aurkaria definitzea; “zaharkituztat” edo “Laborismo Zahartzat” jotzen da (Tony Blair-en hitzak erabiltzeagatik).

Oso kezkatuta nago; izan ere, deliberazio-demokrazia, gogoetazko errealitatea eta antzekoak maiz aurkezten dira benetako diskurtso aurrerakoi gisa, egungo demokrazia-mailara ondoen egokituriko diskurtso gisa. Gure gizarteak “politika ondoko” ikuspegitik hartzen badira, ezin da egungo hegemoniaren alternatibarik eman. Ikuspegi horien ondorioz, ez gara gai politikoki pentsatzeko, galdera politikoak egiteko edota erantzun politikoak emateko.

Giza eskubideen diskurtsoak ezgaitasun hori indartzen duela ohartu behar genuke; izan ere, hori da egun gailentzen den diskurtsoa, gainerako guztiak ordezkatzeko dituen. Gaur egun, giza eskubideak diskurtso soziopolitikoaren ordezkotzat erabiltzen dira, horiek lehen zuten izen ona galdu baitute. Marcel Gauchet-ek esan bezala (Gauchet, 2000), kontzientzia kolektiboaren antolaketarako eta ekintza publikorako arau bihurtu dira. Arazoa honako hau dela dio: horrelako diskurtsoak direla-eta, ez dugu ulertzen gauzak zergatik diren diren bezalakoak, ezta nola alda daitezkeen ere. Izan ere, behin eta berriz giza eskubideetara jotzen denez, askotan, gaizki ikusita egoten da azalpenak bilatzea: ulertzen saiatzea “onartezintzat” jotakoari aitzakiak bilatzen saiatzea da. Horrexegatik, askotan, salaketetatik bizi da giza eskubideen ideologia. Intentziazko politikari ez zaio axola bere ekintzen ondorioa: asmo oneko politika denez, ezin da kritikatu.

IV.

Elementu horiek guztiak elkartzen baditugu, nagusi den adostasuna zein ideologia-esparrutan dagoen hautematen has gaitezke. Adostasun horrek bi aurpegi ditu: batetik, neoliberalismoa; bestetik, giza eskubideak. Ez ezazue, ordea, nire ikuspegia gaizki ulertu: ez dut esan nahi giza eskubideak gainegitura ideologikotzat edo neoliberalismoaren estalkitza hartu behar direnik. Nire iritziz, demokrazia modernoaren osagaietako bat dira, eta, beraz, ezinbesteko elementuak dira demokrazia horiek balioa izateko eta horien alde borroka egiteko. Benetako diskurtso politiko baten ordezkotzat bihurtzen direnean sortzen dira, ordea, arazoak; hau da, demokrazia giza eskubideak defendatzera bakarrik mugatu eta gainerako dimentsioa —hots, herriaren subiranotasuna— albora uzten denean. Horrelako mugimenduek eragotzi egiten dute demokrazia modernoaren izaera ulertzea. Hots, demokrazia modernoak bi tradizio uztartzen ditu: batetik, tradizio liberala —legediaren agintea eta norbanakoaren askatasuna—; bestetik, tradizio

demokratikoa —berdintasuna eta herriaren subiranotasuna—. Gaur egun, eduki liberala pribilegiatutzat eta elementu demokratikoa zaharkitutzat jotzen dira, eta joera horrek ondorio politiko larriak izan ditzake. Hori da, hain zuzen, eskuineko alderdi populistek gero eta arrakasta handiagoa izatearen arrazoa: eliteen aurka, herriaren subiranotasuna berriro ekarri dutelako itxura egiten dute.

Liberalismoaren egungo hegemoniaren ikuspegitik uler dezakegu egun nagusi den diskurtso moralista, benetako diskurtso politiko guztiak ordezkatu dituenena. Jakina, askok pozik hartu dute ordezkapen hori: demokraziak fase berri eta heldu bati ekin dion seinaleztat jotzen dute, eta, horien iritziz, konfrontazio-politika zaharkituak ordezkatu ditu moralitasunak. Baina gai hori gertuagotik aztertzen badugu, berehala ohartuko gara hori ez dela horrela: politika —“antagonismo zaharkitua” omen zuena— ez dute ordezkatu maila altuagoko gai moralek. Antagonismoak dituen politika oso bizirik dago oraindik, baina, orain, ikuspegi moraletik praktikatzen da. Gure eta haien arteko mugak ez dira desagertu: etengabe ezartzen dira. Baina, orain, politikoki definitu ezin direnez —aurkaritzako ereduak ustez garaituta baitago—, muga horiek kategoria moralen arabera ezartzen dira, “onak garenon” eta “gaiztoak diren haien” artean.

Beste modu batera esateko, “tradizional ondoko” deituriko gure gizarteetako pertsona guztiak barne hartzen ditu zentroko adostasunak. Ezingo da, ordea, adostasunik egon mugarik ezartzen ez bada; izan ere, mugarik ez badago, ez da egongo adostasunik, ezta hori lortzeko identitate komunik ere. Ez da “gurik” egongo “haiek” gabe, eta talde guztien identitatea “kanpoko osagarrien” baitan egongo da. “Gu guztiok demokrata onak” garela ziurtatzeko, beraz, “haiek” definitu beharko dira. Baina “haiek” ezin dira aurkari politikotzat definitu, etsai moralizat baizik, “gaiztotzat”. Gehienetan, “eskuin muturrekoak” jotzen dira “gaiztotzat”, benetan beharrezkoa baita “gaiztoak” egotea demokrata onak ere egon daitezzen. “Eskuin muturraren” aipamen hori ez da oso lagungarria, zehaztu gabeko kategoria bihurtu baita: hainbat motatako mugimendu ugari barne hartzen dira, inolako bereizketarik gabe; esaterako, *skin head*ak eta eskuineko alderdi populistak. Multzokatzean ezberdintasunak eta berariazko ezaugarriak desagertu egiten direnez, ezin da prestatu estrategia egokirik horien aurka politikoki borrokatzeko. Baina, noski: “demokrata onen” ikuspegitik, ezberdintasun horiek ez dira garrantzitsuak. Kontua ez da analisi politikoa egitea, “haiek” zein diren mugatzea baizik, horrek “gu” eratzeko baldintzak ematen baititu.

Azaldu nahi dizuedana hau da: erregistro moralean erabiliriko politika-mota horrek ez du laguntzen “esfera publiko agonistikoa” eratzen, eta, esan dudana bezala, esfera hori ezinbestekoa da bizitza demokratiko sendorako. Aurkaria politikoki definitu beharrean moraliki definitzen bada, ezingo da aurkarizat jo, etsaitzat baizik. “Gaiztotzat” jotzen baditugu, ezingo da eztabaida agonistikorik egin, etsaia deuseztatu egin behar baita. Izurri moralaren seinaleztat jotzen dira maiz, eta, beraz, ez dago horien izatea edo arrakasta ulertu beharrik. Horregatik, askotan, gaitzespen moralak benetako analisi politikoa ordezkatzeko du, eta “osasun-kordioa” eraikitzea izaten da estrategia, kaltetutako sektoreak koarentenan jartzeko.

Ironikoa den arren, azkenean, adiskide/etsai eredu politikoa ordezkatu dela defendatzen duen ikuspegiak lagundu egiten du eredu politiko antagonista

berpizten, baina, oraingo honetan, ezin da antagonismoa agonismo bihurtu. Zenbaitek antagonismoa amaitu dela eta adostasunezko gizartea iritsi dela iragartzen dute; baina horrek esfera publiko agonista sortzen lagundu beharrean —horri esker eusten zaio demokraziari bizi-bizirik—, demokrazia arriskuan jar dezake; izan ere, erakunde demokratikoez bideratu ezin dituzten antagonismoak agertzeko baldintzak sortzen ditu.

V.

Amaitzeko, esfera publiko demokratikoaren baldintzak ulertzeko moduarekin zerikusia duen beste gai bat jorratu nahi dut. Argi dago egungo arazoei ezin diegula aurre egin nazio-estatuaren mailan, testuinguru zabalago batean baizik. Hemen aurkeztu dudak ikuspegi teorikoa onartzen badugu, bistakoa da testuinguru zabal hori ezin dela planeta osoan aplikatu. Gobernu demokratikoa egoteko, ezinbestekoa da unitateak egotea: “demoi” horietan, herriek subiranotasuna izango dute, eta, hortaz, mugak nahitaezkoak izango dira. Nire iritziz, arriskutsua da giza-terriaren ideia abstraktuan bakarrik oinarrituriko herritartasun kosmopolitan pentsatzea. Autogobernu demokratiko eraginkor baterako baldintzak ezartzeko, herritarrek *demos* bateko kide izan behar dute: hor, herritartasun-eskubideak erabil ditzakete, eta hori ezingo luke egin herritar kosmopolita batek. Horrek ez du esan nahi, noski, unitate politiko horiek nazio-estatuaren berdin-berdinak izan behar dutenik. Benetan arrazoi onak daude unitate txikien eta handien bizikidetzaren alde egiteko, partaide izateko modu ezberdinen arabera eta erabaki beharreko gai-moten arabera unitateen alde. Horrenbestez, globalizazioa “eskualdetze bikoitz” gisa ikus daiteke: batetik, zenbait nazio-estatu osaturiko eskualde-elkartzeak daude —esaterako, Europar Batasuna—; eta, bestetik, horiek, era berean, azpieskualdetan banatuta daude, zenbait nazio-estaturen atalez osatuta. Horrek pluralismo-modu berri baterako baldintzak sortuko lituzke, eta herritarrek ahalmen gehiago izango lukete maila ezberdinetan parte hartzeko.

Horrexegatik iruditzen zaizkit bereziki interesgarriak federalismo-modu berriak eratzeko saiakerak. Massimo Cacciari Veneziako alkate ohiak eginiko zenbait proposamen datozkit gogora. Cacciari nazio-estatu tradizionalaren aparatatu burokratiko, autoritario eta zentralista erabat desegingo lukeen iraultza kopernikarraren aldekoa da². Cacciari-ren arabera, bi mugimendu nagusi ari dira suntsitzen estatu modernoa: bata, mikronazionala; bestea, nazioz gaidikoa. Lehena, barnetik, mugimendu erregionalista edo tribalisten presioaren eraginez. Bigarrena, kanpotik, nazioz gaidiko botereen hazkundearen, munduko finantzen eta enpresa transnazionalen eraginez. Federalismoa jotzen du egoera horren konponbidetzat, baina oso federalismo berezia defendatzen du: “beheko federalismoa” deitzen dio, eta “goiko” federalismoaren kontrakoa da —esaterako, Europar Batasunaren eredu-tzat aurkeztu dena—. Beheko federalismo horrek eskualde eta hiri bakoitza-ren berariazko identitatea aitortuko luke. Federalismoaren helburua ez litzateke, ordea, horiek isolatzea edo elkarrengandik bereiztea; autonomia lortzeko baldintzak eman-gotuzke, baina, autonomia hori sortzean eta antolatzean, eskualde eta hiri horien arteko harreman ugariak hartuko lirateke oinarritzat. Federalismo horrek elkarta-

2. Ideia horietako batzuk Cacciari-ri eginiko elkarrizketa batean aurki daitezke: “The Philosopher Politician of Venice”, *Soundings*, 17. zk., 2001eko udaberria.

sunak eta lehiakortasuna uztartuko lituzke, eta eredu gatazkatsuan integraturiko sistemetan gauzatu litzateke autonomia.

Ideia horiek gehiago garatu beharra dago, baina oso erakargarriak direla deritzot. Globalizazioaren ondorioz gizarte-eredu homogeneizatzaile bakar bat inposatzea eta erakunde demokratikoak gainbehera etortzea nahi ez badugu, elkartze-modu berriak pentsatu behar ditugu berehala: horietan pluralismoak gora egingo du, eta erabaki demokratikoak hartzeko ahalmena areagotu egingo da. Mundu-gobernu kosmopolitaren amets antipolitikoaren aurka nago, baita nazio-estatuaren aldeko obsesio antzu eta kondenatuaren aurka ere. Nire iritziz, Cacciari-k defendaturiko federalismoak etorkizun handiko ikuspegi berria ematen digu. Horri esker, aitorturiko interdependentzian oinarrituriko elkartasun-modu berriak proposatu ahal izango ditugu. Ideia nagusi horretan oinarrituta, indar demokratikoak esfera publiko demokratiko ugaritan antolatuko dira. Eta horrek borroka agonistikoa piztuko du —lehen esan bezala, politika demokratikoaren ezaugarri definitzailea da hori—. Gainera, federalismo berri hori ez litzateke Europaren berariazko federalismotzat jo behar, eta eskualdeko beste unitate batzuen garapena ere sustatu behar luke, horien berariazko identitatea mantenduz. Unitate horietan, hainbat modutara gara litezke orokortasuna eta tokikotasuna, eta era askotako loturak ezar litezke —betiere, ezberdintasunak errespetatuz—. Horrenbestez, bizirik eutsi ahal izango genioke prozesu demokratikoari, eta prozesu hori erabateko norabide demokratikorantz nola bideratu eta sakondu ulertuko genuke.

Bibliografia

Beck, U.; Giddens, A. eta Lash, S. (1994): *Reflexive Modernization*, Polity Press.

Gauchet, M. (2000): "Quand les droits de l'homme deviennent une politique", *Le Débat*, **110**.

Giddens, A. (1991): *Modernity and Self-Identity*, Polity Press.

Habermas, J. (1996): "Reply to Symposium Participants", *Cardozo Law Review*, 17. liburukia, 4-5, 1493.

